

Asteazkena, 2013-03-06  
Asteazkena, 2013-03-06

**hitza** Info  
Donostiako informazioa euskaraz

ZUREA DA HITZA

Navigation ☰

## Sagardo usaina zerion hiriari

by Aritz Sorzabal on 2013/01/25 in



Txotx denboraldia hasi da. (Argazkia: Mikel Goñi).

Donostia sagardotegien erresuma zen joan den mendearen hasieran; 1931. urtean, hirian 99 sagardotegi zeuden eta Altzan, 47.

Sagardo denboraldiari ekin zioten joan den astean, ofizialki. La Oreja de Van Gogh izan zen sagardo berria edaten lehena, askorentzat musika taldeko kideak lekuz kanpo zeudela iruditu arren. Zabaldua dago ere hiriak sagardoarekin loturarik ez duela dioen leloa, baina hori, kasu honetan, ez da horrela. Historiak, hain

justu, kontrakoa dio.

Hain zuzen ere, Astigarraga, Hernani, Urnieta eta Usurbil dira gaur egun sagardoaren lurraldea, baina garai batean bestelakoa zen egoera. Urrutira joan gabe, joan den mendearen hasieran, Donostia zen sagardoaren hiriburua, orduan udalerrri zen Altzarekin batera.

1931. urtean, Jose Uria Irastorza idazlearen Sagardoa liburua arabera, Donostian 99 sagardotegi zeuden eta Altzan, 47. Gaur egun, berriz, hamar bat sagardotegi besterik ez daude hirian; Barkaitzategi, Gartziategi, Lizeaga, Urkiola eta Kalonje, besteak beste.

Urte hartan, bi milioi litrotik gora ekoitzi zituzten Donostian. Beste garai batzuk ziren, zalantzarik gabe, auzo gehienetan sagardotegiak zeuden eta. 1940. hamarkadan, Parte Zaharrean, La Paloma, Jauregi, Mozo eta abar luze bat zeuden. Erdialdean, Amaran eta Egian ere bazeuden. Azken auzo honetan, oso hedatua zegoen sagardotegi tradizioa.

Egiako Eizmendi sagardotegiak, esaterako, ehun milatik gora litro ekoitzi zituen bi urtetan, 1931 eta 1932an. Gainera, sagardotegi hark bolatoki bat zuen aisia sustatzeko. Sagardo gozoa ere egiten zuten eta, garai hartan freskagarri gutxi zeudenez, oso harrera ona izan zuen edariak; emakumeen artean, bereziki.

Ez zen giro Eizmendin. Loiolako kuartelak ondoan izanik, eta Martutenen dantzaleku bat egonik, jende asko joaten zen sagardotegira askaria hartzera, Martutenera bidean. 1936ko gerra aurretik, Arzak jatetxe ezaguna ere sagardo ekoizle handia izan zen. 1931n, ia ehun mila ekoitzi zituen.

XIX. mendearen bukaeran ere sagardotegiak zeuden hirian, baina beste motatako itxura zuten. *El Eco de San Sebastian* egunkariak 1886an deskribatutakoaren arabera, ordukoek ez zuten zerikusirik egungo jatetxe itxurako sagardotegiekin; gehienak amaraunez betetako zulo ilun, beltz eta hezeak ziren.

### **Heriotz zigorra**

Sagardoa oso garrantzitsua izan ohi da gizartean, duela hainbat mende ere; horren erakusle, foruek aurreikusten zituzten zenbait klausula. Hain zuzen ere, sagarrondo, sagar eta sagardoari buruz lege ugari izan ziren urtetan, sektorea behar bezala babesteko asmoz.

Foruek, adibidez, sagastietan kalteak sortzen zituztenentzat zigorrak aurreikusten zituzten, beti ere sagarrondoak zaintzeko helburuarekin. 1457. urteko Gipuzkoako ordenantzaren arabera, bost sagarrondo bota edo suntsitzen zituenari heriotz zigorra zegokion.

Zigor ekonomikoak ere bazeuden. 1587. urtean, Hernaniko ordenantzaren arabera, ahuntzen bat sagastian sartuz gero, jabeak 24 marabedi ordaindu behar zituen, eta antxumea sartuz gero, 12 marabedi. Bestalde, legearen arabera, Gipuzkoako herrietan ezin zen kanpoko sagardoa herrira sartu bertakoa bukatu arte. Bazegoen, ordea, herrikoa kanpoan saltzeko baimena.

### **Itsasoa eta sagardoa**

Euskaldunen eta itsasoaren arteko harremana aski ezaguna da gizartean. Itsasgizonek sagardoarekin zuten lotura, ordea, ez da horren jakina. Izan ere, ez ardoa eta ez bestelakorik, askorentzat ezezaguna izan arren, euskal itsasgizonen edari nagusia sagardoa zen garai batean. Sagardoa zuten bidaide.

Erdi Aroan herritarrek hornitzeko elikagai nahikoa ez zegoenez, itsasoan bilatzen hasi ziren euskaldunak. XVI. mendean, Amerikaren aurkikuntzak hedatze ozeanikoa ekarri zuen, eta itsas abentura horietan nabarmen parte hartu zuten euskal arrantzaleek, liburuek eta dokumentu zaharrek jasotako hainbat eta hainbat pasartek frogatuta utzi duten bezala.

Ura usteldu egiten zenez, alkoholdu edariak eraman ohi zituzten marinelek bidaia horietarako. Beste herrialdeetako itsasgizonek garagardo edo ardo upelez betetzen zuten itsasontziko sotoa; euskaldunek, berriz, sagardoz.

Aukeraketa horrek bazituen bere arrazoiak, ez zen ausazkoa izaten. Antza, euskaldunena zen guztietan hautu egokiena. Egardia lasaitzeaz gain, sagarraren bitaminei esker, eskorbutoa eta bestelako infekzio eta gaixotasunak izatetik babesten baitzituen. Sagardo hura ez omen zen gaur egungoaren berdina, urarekin nahastua, baizik. Gaur egun, sendagaia ere ez da.

Itsasora zabaltzarekin batera, lurraldean beste iraultza bat ere izan zen; sagardoaren ekoizpen industrialia, hain zuzen ere. Sagardoak merkatu zabala zuen, eta hura hornitu beharra zegoen.

Urte askotan Ternuara itsasgizon andana joan zen, eta batez besteko, hiru bat litro edaten zituzten egunero. Zortzi edo bederatzi hilabeteko kanpaina baterako itsasontzi ertain batean, 50.000 litro sagardo eramatera iristen ziren. Horiek hemen ekoizten ziren, eta Pasaiaiko portuan izaten zuten itsasoratzeko abiapuntua.

### **Elkarteen sorburuan**

Donostiako lehen elkarte gastronomikoak sortu zituztenean ere sagardoak zerikusi zuzena izan zuen, baita itsasgizonek ere. Arrantzaleek itsasora irtetzerik ez zutenean, kaiko sotoren batean edo Parte Zaharreko guneren batean elkartu ohi ziren. Bilkura horietan sagardoa zen nagusi, eta zenbaitetan sagardoa eurek egiten zuten. Horrela sortu omen ziren lehen elkarte gastronomikoak.

Elkarte horiek urte osorako erosten zuten sagardoa, otsaila eta martxoan botilatzen zena. Botiletan sartu aurretik, elkarteetako kide batzuek dastaketa egiten zuten. Bakailaoa behar bezala prestatuta, sagardotegira joaten ziren sagardoa aukeratzerara. Aukeraketa liskarrak sortu ziren behin baino gehiagotan. 1934an, esaterako, Gaztelupeko zenbait kidek, aukeratutako sagardoa zela edo ez zela, elkartea utzi eta Gaztelubide sortu zuten.

## Profile

Sign in with Twitter Sign in with Facebook

or

Name

Email

Not published

Website



CAPTCHA Code \*

### Post It

x



Bilatu zure inguruko sagardotegia



Karpe Deal  
15,00 €  
deskontua  
%61  
[Eskaintza ikusi](#)

**LABURRAK**

Zinemaldirako kartel lehiaketa, on-line

---

Zine dokumentalaren lehenengo zikloa, Koldo Mitxelena Kulturunean

---

Def Con Dosen kontzerturako sarrerak salgai daude

---

**LORETOPETIK**

Ion Martinez: 'Kulturari benetako bultzada!'

Hilaren hasieran Hamaika Telebistako Punto Info...

---

Beñat Gaztelumendi: 'Etorkizunaz'

“Mundua zabala eta ederra da eta zuek zuen...”

---

Xabier Arzelus: 'Maisuba'

Azken bi hilabeteotan, herri kutsu haundiko...

---


Luix Barinagarrementeria: 'ERE'

Edo “Enplegu Erregulazio Espedientea”....

---

*Irakurri guztiak*

BIDEOAK



Miriam Cepeda organo-jotzailea

1:36



Altzako Eltze festa

3:07



Lilatoirik jendetsuena izan da

4:07



## DONOSTIA KULTURA

**donostiakultura.com**



Kultur Agenda



[Zinema Carousel \(1956\) 2013.03.06](#)



[Zinema Madame Brouette \(2003\) 2013.03.06](#)



## BILATU



## AUZOAK

[Aiete](#) | [Altza](#) | [Amara](#) | [Amara Berri](#) | [Amara Zaharra](#) | [Añorga](#) | [Añorga Txiki](#) | [Antiqua](#) | [Bidebieta](#) | [Egia](#) | [Erdialdea](#) | [Gros](#) | [Ibaeta](#) | [Igeldo](#) | [Intxaurrondo](#) | [Kaia](#) | [Loiola](#) | [Loiolako Erribera](#) | [Martutene](#) | [Miramon](#) | [Morlans](#) | [Parte Zaharra](#) | [Puio](#) | [Txomin](#) | [Txomin Enea](#) | [Ulia](#) | [Zubieta](#)

## URTEKARIA 2012



## POPULAR

## COMMENTS

- Gazteek kudea dezaten, espazio bat luzatuko die udalak  
2013/02/27
- 'Kaixo!' errotulua jarriko dute euskaraz egiten duten saltokiek  
2013/02/26
- Antiguako gazteei Gaztegunea utzi izana gogor kritikatu du PPK  
2013/03/01

15°C

Gaur **15°C** **9°C**  
 Bihar **17°C** **11°C**  
 Ostirala **15°C** **9°C**  
 © Tutiempo.net **Más »**

## BERRIKETAN.INFO [RSS]



Iñaki Petxarroman

posted an update

46 minutes ago

Noam Chomsky, Hugo Chavez buruz.

Array



ZuZeu

posted an update

1 hour, 43 minutes ago

Hugo Chavezen heriotza eta sutea sarean <http://zuzeu.com/2013/03/06/hugo-chavezen-heriotza-eta-sutea-sarean/>



Iñaki Petxarroman

posted an update

2 hours, 34 minutes ago

Militar kolpista izan zen, ezin uka. Baina pobreei mendeetan ukatutako duintasuna berreskuratzen lagundu die. Argi gehiago ditu itzalak baino, eta munduari etika irakaspenak ematen harrotzen diren Europako politikari erdi-purdikoek (Sarkozy, Rajoy, Aznar, Berlusconi...) handi egingo dute Hugo Chavez ikuspegi historiko batetik.



Ordiziako Ahotsa

posted an update

4 hours, 57 minutes ago

Birziklaketaren aldeko apustuak herritarren babesa duela erakusteko, herritar guztiak daude deituta martxoaren 16an, 12:30ean, Ordiziako Plazan argazkia ateratzera. <http://bit.ly/ZoLgIE>




Martxelo Otamendi

posted an update

10 hours, 45 minutes ago

Chavez hil da. Antonio Lopez BERRIarentzat zuzenean Caracasetik. Kantua presidenteari gorazarrea egiteko.



IRUTXULOKO HITZA (2012-03-01)



SAN SEBASTIAN JAIA 2013



- Joseba Alvarez: “Herrigintzatik egiten dena osatu behar dute erakundeek”
- Nola Alejos eta Asun Urbietak: «Lilatoiak beste lasterketa batzuetan parte hartzera eraman gaitu»
- PSE-EEk eta PPk Metroaren lanei heltzeko eskatu diote Jaurlaritzari
- Muntok bizirik jarraitzen du
- Helen Agreda (Wilhem And The Dancing Animals): «Oso garrasizaleak gara»

ALBISTE GUZTIAK IRAKURRI

---

## KIROLA

---

'Emakumeak txuri-urdinez' erakusketa zabalduko dute ostegunean

Donostiarra 14. postuan geratu da Oriaren XIX. Jaitsieran

Realak 24.716 bazkide ditu

Lucas Egibarrek snowboardcross lehia irabazi du junior mailako Munduko Snow Txapelketan

## KULTURA

---

Huts Teatroaren 'Publikoari gorroto' antzezlanak irabazi du Donostia Antzerki Saria

Zinemaldirako kartel lehiaketa, on-line

Santa Maria elizako organoak 150 urte beteko ditu

Ze premikin! jaialdia antolatu du Le Bukowskik, bigarren urtez jarraian

## AISIA

---

Zine dokumentalaren lehenengo zikloa, Koldo Mitxelena Kulturunean  
25 eurogatik bertako produktu freskoak jateko aukera eskainiko dute  
Def Con Dosen kontzerturako sarrerak salgai daude  
Cosmonauts eta The Frowning Clouds taldeek joko dute Bukowskin

## GIZARTEA

---

EH Bilduko emakumeek eraldaketa sozial feminista aldarrikatu dute  
Emakumeen egunaren inguruan egitarau zabala aurkeztu dute  
Bizitza ardatz duen sistema bat aldarrikatuko dute martxoaren 8an  
Jendetza atera da kalera hezkuntza erreformaren aurka protesta egitera

## EKONOMIA

---

IRPH interes tasa aplikatzeari uzteko eskatu dio Stop Kaleratzeak taldeak Kutxabanki

245 enpresa sortu zituzten iaz, Donostiako Sustapenaren laguntzarekin

Giza katea egin dute Osakidetzako murrizketen aurka

Baratze publikoen egitasmoa jaso dute ingurumen aurrekontu proiektuan

## POLITIKA

---

Udal gobernuak altzatarrei aurkeztu die 2013ko aurrekontu proiektua

Udalbiltza Viktoria Eugenian berrosatu da

'Le journal du Pays Basque' egunkariak Anza kasuan izandako disfuntzionamenduak agerian utzi ditu

Donostiako 15 auzipetuei babesa emateko, manifestaziora deitu du Eleakek

© Donostiako Hedabideak, S.L.  
Katalina Eleizegi 36 behekoa - Donostia - Tel.: 943-467236 - Faxa: 943-446532 - E-posta:  
[donostia@hitza.info](mailto:donostia@hitza.info)



**Donostiako Udala**  
**Ayuntamiento de San Sebastián**  
Euskara Zerbitzua